

BRØDERS

AURKIBIDEA

Zer da hau	3. or.
Testuingurua	4. or.
Estrategia	7. or.
Hartzaileak	10. or.
Broders	12. or.
Kanpaina	16. or.
Nola parte hartu	17. or.
Nor gara?	20. or.

ZER DA HAU?

Gazteen maskulinitateei buruzko proiektu kolektibo bat. Antolakundeekin, kolektiboekin eta erakundeekin batera estrategiak sustatu nahi ditugu, gizarte-aldaketarako aliantzak eraikitzeko.

Aldaketaren teoria: Gizon gazteentzako truke- eta kontsultagune seguruak sortzen baditugu eta estereotipo toxikoak zalantzan jarriko dituzten askotariko narratibak sustatzen baditugu, bidea jarriko dugu hausnar dezaten eta, hartara, maskulinitate anitzago eta berdinzaleagoak joka ditzaten. Erreferenteak edukitzeak modua ematen du bestelako izaerak eta pentsaerak irudikatu eta eraikitzeko.

TESTUINGURUA

EGOERA KEZKAGARRIA

Lerroburuek ohartarazten digutenez, gazteak diskurtso misoginoen eraginpean daude, eguneroko eremuetan indarkeria bizi dute, eta munduaren gaineko ikuspegi totalitarioetarako joera dute.

Manosferaren goraldiaz hitz egiten dute: maskulinitatearen txarrena normalizatzen eta sustatzen duten online komunitateak dira.

Galdera hau egiten diogu geure buruari: Gizon gazteek zer pentsatzen dute egiazki berdintasunari, tratu onei eta harreman osasuntsuei buruz? Zer estrategiak eta mezuk konekta dezakete haiekin?

TESTUINGURUA

Generoaren eta maskulinitateen arloko adituei galdetu diegu; TikTokek eta Instagramek haien pertzepzioa nola moldatzen duten aztertu dugu, eta haien ahotsak entzun ditugu, talde fokaletan.

Lehenengo ondorioa: gazte “erreakzionarioak” ez dira gehiengoa, baina dagoeneko gehiegi dira.

Gizon gazteek berdintasunean egin diren aurrerapenak onartzen dituzte, eta diskurtsorik misoginoenetatik urrunduta daude, baina feministek bidegabe seinalatzen dituztela uste dute, eta gero eta beldur edo arbuio handiagoa sentitzen dute feminismoaren aurrerapenekiko.

TESTUINGURUA

Harreman afektiboetan, galduta eta segurtasunik gabe sentitzen dira. “Marra gorriak” argi badauzkate ere, zalantza egiten dute gizonentzako jokabide onargarria zein den.

Hitz egiteko beharra dute, baina eremu toxikoak bakarrik aurkitzen dituzte horretarako. Erreferenteak falta zaizkie.

Manosferak dimentsio afektiboa dauka: hor, ulermena eta babesa aurkitzen dituzte, epaitu eta barregarri utzi gabe aintzatesten dituzte, eta munduari buruzko azalpenek asebetetzen dituzte.

ESTRATEGIA

GUNEA

Haien alorrean lan egitea: epairik gabe hitz egiteko, iritzia trukatzeko eta benetan entzuteko guneak prestatzea.

BEGIRADA

Haien belaunaldiaren alderdi onak azpimarratzea. Begirada irekia eskaintzea, gazte alfer, erradikal eta nihilistak marrazten dituzten lerroburuetatik aldendua.

HELBURUAK

Haien agentzia sustatzea. Helburu lorgarriak erakustea eta arazoizko aldaketak proposatzea.

KOSTUA

Maskulinitateen kostua erakustea. Haien ondoezak genero-desberdinkeriekin lotzea.

ALTERNATIBA

Kontrabrotherhood digital bat elikatzea. Atxikipen- eta elkarrizketa- gune alternatiboak bultzatzea.

ESTRATEGIA

ELKARRIZKETARAKO ETA BIDELAGUNTZARAKO PLATAFORMA BAT SORTZEA

Mutil gazteei zuzendutako web-plataforma bat sortzea, kezkei eta interesei buruz hitz egiteko eta babesa bilatzeko gune seguru eta osasuntsu bat. Antolakundeek, institutuek eta gazte-elkarteek gomendatzeko moduko baliabide bihurtzea.

ONLINE ETA OFFLINE KANPAINA KOLEKTIBO BAT SUSTATZEA

Sareetan eta beste ingurune batzuetan kanpaina bat sustatzea, maskulinitate toxikoaz bestelako narratibak eraikiko dituzten eta gazteengana hurbilduko diren eduki eta materialekin.

ESTRATEGIA

ESTRATEGIA NARRATIBOA

Gizon izateak zer esan nahi duen ulertzeko modu berriak eraikiko dituzten lagunak edukitzea oso garrantzitsua dela azpimarratzen dugu. Benetako laguntasunak ez dakar dibertsioa bakarrik, baita kritika eraikitzailea eta baterako hazkuntza ere.

HIZKERA ETA ESTILOA

Umorez, hizkera informala erabiliz. Informatzailea, baina ez lezio-emailea edo moralizatzailea. Hurbiltasuna eta jatortasuna hizkuntzan.

BALIOAK

Adiskidetasuna eta elkar-babesa.

Enpatia eta zaintzak.

Berdintasuna eta ekitatea.

HARTZAILEAK

GAZTEAK



Gazte arruntak:

Ez daude erradikalizatuta, baina zalantzak dauzkate, eta eraginerrazak dira.

Pertzepzio positiboak dauzkate, besteak beste, laguntasunaren edo enpatiaren gainean, baina ez daukate maskulinitate berdinzale eta adeitsuagoak garatzeko erreminta edo informaziorik.

HELDUAK



Gazteekin harremanetan daude, senide, hezitzaile edo profesional gisa, eta belaunaldi berrien dinamikak hobeto ulertzeko eta erreminta gehiago edukitzeko premia sentitzen dute.

Fikziozko zenbait profil garatu ditugu, hartzailleak irudikatzen eta kanpaina diseinatzen laguntzeko.

HARTZAILEAK



Oier: 14 eta 19 urte arteko ikaslea, zis heteroa. Kirola egiten du, eta Instagram, TikTok eta Youtube kontsumitzen ditu. Handitan zer izan nahi duen pentsatzean, larritu egiten da. Ez zaizkio txantxa matxistak gustatzen, baina lagunek egiten dituztenean isilik geratzen da. Gelako neska batzuk gogoko ditu, baina ez daki haiekin zeri buruz hitz egin.



Ander: 20 eta 25 urte arteko unibertsitate-ikaslea, zis heteroa. Astean hainbat aldiz gimnasia joaten da, eta neska-laguna dauka. Gurasoen etxean bizi da. Bere belaunaldiko gizonak eta emakumeak aukera berberak dauzkatela uste du, baina neskek gauetan kontu handiagoz ibili behar dutela onartzen du.



Izaskun: 35 eta 50 urte arteko irakaslea. Mutil askoren jarrera gero eta oldarkorragoak kezkatzen du, baita lankide gizon batzuek feminismoarekin eta harreman sentimentalekin daukaten jarrerak ere. Sare sozialekin pixka bat galduta dago. Maskulinitateei, berdintasunari eta harreman osasuntsuei buruz hitz egiten laguntzeko erremintak eta baliabideak bilatzen ditu.

BRØDERS

IDEIAK TRUKATZEKO
ETA BIDELAGUNTZA
JASOTZEKO
WEBGUNE BAT,
MUTILENTZAT
PENTSATUA.
SEGURUA,
ANONIMOA ETA
DOAKOA.
SUEDEIAKO KILLAR
PROIEKTUAN
INSPIRATUA.

FOROA

Kontsulta anonimo eta seguruak egin ahalko dituzte, edozein gairi buruzkoak, eta beste mutil gazte batzuek erantzungo diete, modu anonimoan baita ere.

TXATA

Gazteen bidelaguntzan espezializatutako boluntario batekin txatean jardun ahalko dute, modu pribatuan.

DEIAK

Bidelaguntza psikologikoko dei bat eskatu ahalko dute kasu berezietan.

GAIK

Osasun mentalari, harremanei, sexuari, jelskortasunari, presio sozialari, indarkeriei eta barri buruzko edukiak ikusi eta irakurri ahalko dituzte.

FOROA

Mutilek interesatzen zaien edozein gairi buruzko kontsulta anomikoak egin ahalko dituzte, eta beste gazte batzuek erantzungo diete, modu anonimoan.

Boluntarioek foroa kudeatzen lagunduko dute, trollak eta spama saihesteko.

Berdinen artean autoerregulatzeko kultura sustatuko da.

TXATA

Txat pribatu, seguru eta anonimoa, *Trygg.chat*-ekin.

Mutila gazteen bidelaguntzan espezializatutako boluntario batekin arituko da txatean.

Zerbitzua asteleheneretik ostiralera egongo da aktibo, 18:00etatik 21:00etara.

BRØDERS

DEIA

Kasu berezietan, profesional batekin doako dei bat edukitzea eskatu ahalko dute.

Proiektuko psikologoa daukagu.

Askotariko profesionalen sare bat daukagu (osasun mentala, sexologia, bullyinga eta abar), kasuak haiei deribatzeko.

KANPAINA

SAREAK

Sare sozialetan eta web-plataforman edukiak sortzeko orduan, influencer-ekin, streamer-ekin eta podcaster-ekin lankidetzan aritzen gara.

Material bisualak diseinatzen ditugu, eta daudenak zuzentzen.

Edukiak sortzeko eta sareen eta weben bidez zabaltzeko prest dauden pertsonen, antolakundeen eta kolektiboen bila gabiltza.

Hedabide jeneralistetan eta natibo digitaletan, Bróders proiektuaren berri emango dugu.

BALIABIDEAK

OFFLINE

Informazio- eta dibulgazio-material digitalak eskaintzen ditugu, hezkuntza-zentroetan, antolakundeen egoitzetan eta maskulinitate- eta gazte-gaietan lan egiten duten gizon gazte eta helduek erabiltzen dituzten bestelako toki fisikoetan banatzeko.

NOLA PARTE HARTU

Gazteen bidelaguntzari buruzko 10 orduko prestakuntza espezializatua jasoko duzu, doan, eta boluntario egindako orduak aitortuko zaizkizu.

Foroa kudeatzen lagunduko duzu, trollak eta spama saihesteko; halaber, txatari erantzungo diozu.

Laguntza-taldeetara jo ahalko duzu, zalantzak argitzeko eta esperientziak partekatzeko.

NOLA PARTE HARTU



Broders proiektua ezagutu eta bertan parte hartu nahi duten pertsona, antolakunde eta erakunde guztiak gonbidatzen ditugu WhatsAppeko komunitate honetara. Abisuen atal bat eta hainbat talde pribatu zein publiko dauzka ideiak eta iradokizunak trukatzeko, hedapen-edukiak partekatzeko, boluntario-lanak antolatzeko eta abarrerako.

NOLA PARTE HARTU



Sare sozialetan, maskulinitateei, gazteei, harremanei, sexualitateari, osasun mentalari, gorroto-diskurtsoei eta indarkerien prebentzioari buruzko edukiak zabalduko ditugu.

Sare sozialetan, maskulinitateei, gazteei, harremanei, sexualitateari, osasun mentalari, gorroto-diskurtsoei eta indarkerien prebentzioari buruzko edukiak zabalduko ditugu.

Gai horiei buruzko ikus-entzunezko materialik baldin badaukazu kanpainan txertatzeko, edukiak sortu nahi badituzu edota sareetan, taldeetan eta webetan materialak zabaldu nahi badituzu, jarri gurekin harremanetan.

Trastiendan, WhatsAppeko gure komunitatean, hedapen- talde bat dago.

Ekarpenen bat egin nahi baduzu, idatzi gure emailera: kaixo@broders.eus

NOR GARA?



Laintersección.net

Finantzatzaileak:

